


# Instalazio eskuliburua


Aplikazioa instalatzeko beharrezkoak diren eragiketa guztiak burutzeko *instalatzailea* izeneko *script*-a dago OnEgin.tar.gz fitxategi barnean. Egin beharrekoa berau exekutatzea da, honetarako fitxategiaren edukia karpeta batera erauzi ondoren, *Shell* (edo aginduen interprete edo *terminal*) bat behar dugu:



## 1. Irudia: terminala irekitzen

Terminalean OnEgin.tar.gz paketeko fitxategiak erauzi ditugun karpetara joateko agindu behar dugu, eta karpeta horretan, erauzketak sortu digun *aplikazioa* karpeta aurkituko dugu. Karpeta horren barnean daude instalazioa egiteko behar diren fitxategiak, tartean *instalatzailea* bera. Karpeta horretara joan eta *instalatzailea* abiarazi behar da (kontuz!, *script*-a dagoen lekuan exekutatu behar da!, ez mugitu beste inora). Instalatzaileak hainbat administrazio lan egin behar ditu


(aplikazioak gehitu behar baititu), eta horretarako, administratzaile baimenak dituen erabiltzailea beharko dugu, eta instalazioa administrazio baimenekin egin dezala eskatu behar zaia, alegia **sudo** hitza gehitu behar zaio aurretik. Ikus 2. Irudia: bertan lehenengo aginduak soft/OnEgin/aplikazioa karpetara garamatza, izan ere, soft/OnEgin karpetan erauzi baitira OnEgin.tar.gz paketeko fitxategiak. Bigarren aginduak ./instalatzailea abiarazten du administratzaile ahalmenekin, horregatik erabiltzailearen pasahitza eskatzen dio sistemak:



```
ccpmaadj@joseba: ~/soft/OnEgin/aplikazioa
Fitxategia Editatu Ikusi Terminala Onglets Laguntza
ccpmaadj@joseba:~$ cd soft/OnEgin/aplikazioa
ccpmaadj@joseba:~/soft/OnEgin/aplikazioa$ sudo ./instalatzailea
[sudo] password for ccpmaadj:
```

## 2. Irudia: instalatzailea abiarazten

Instalatzailea martxan jartzean menu bat agertuko zaigu, *instalatu*, *kendu*, *irten* eta *exekutagarria berrinstalatu* aukerekin.



```
ccpmaadj@joseba: ~/soft/OnEgin/aplikazioa
Fitxategia Editatu Ikusi Terminala Onglets Laguntza
#####
# Ongi etorri On Egin! aplikazioaren instalazio sistemara #
#####
Aukeratu zer egin nahi duzun:
1 - Instalatu
2 - Kendu
3 - Irten
4 - Exekutagarria berrinstalatu
█
```

Menuan aukera bat hartu beharko da, horretarako bere zenbakia sartuz teklatuaren bidez.

## 1. Instalatu

Izenak dioen bezala aplikazioa instalatzeko beharrezkoak diren pausuak burutzeko da aukera hau. Lehenik aplikazioak beharrezkoak dituen paketeak instalatzeko aukera eskaintzen da, ez da beharrezkoa une horretan instalatzea. Ondoren, aplikazioa bera konfiguratu, konpilatu eta instalatzen du eta, azken pausu honetan (instalatu), sistemako administratzailearen pasahitza eskatuko zaigu. Azkenik aplikazioak beharrezkoak dituen irudiak kopiatzen ditu sistemara.

Aurreko eragiketak burututa, aplikazioa instalatuta dago, baina martxan jartzeko MySQL datu-base bat behar du eta ondorioz instalatzaileak ea datu-basea sortu nahi dugun galdetuko digu. Baietz erantzun ezker, MySQL zerbitzarira konektatzeko administratzailearen izena eta pasahitza eskatuko zaizkigu eta, behin horiek emanda, datu-basea (elkarte\_gastronomikoa) eta berau atzitzeko erabiltzaile bat (elkartea) sortuko dira.

## 2. Kendu

Instalazio garaiko pausu berak ematen ditu, baina edukiak sistematik kenduz. Kasu honetan ere prozesuan zehar sistema eragileko administratzailearen pasahitza eskatuko zaigu.

Aplikazioa kendu ostean, MySQL zerbitzariko datu-basea kendu nahi dugun galdetzen digu. Kentzea hautatuz gero, oraingoan ere MySQL zerbitzarira konektatzeko administratzaile izen eta pasahitza eman beharko ditugu. Behin datuok emanda, 'elkarte\_gastronomikoa' datubasea eta

'elkartea' erabiltzailea ezabatuak izango dira.

### 3. Irten

Instalazio sistematik irteteko da.

Oharra: argibide gehiagorako, [OnEgin.tar.gz](http://OnEgin.tar.gz) fitxategian dagoen INSTALATU fitxategira jo.